

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Unibertsitatera sartzeko bideak 2025-2026

www.ehu.eus

OHARRA: 2025-2026 ikasturtean unibertsitatean sartzeko gidaliburu hau informazio-iturria baino ez da. Ez du legezko baliorik eta, beraz, ezin da erabili errekurtsoen oinarri gisa.

Interneteko helbidea: <http://www.ehu.eus>

AURKIBIDEA

1. Gradu ikasketa ofizialetarako sarrera	4
1.1. Batxilergotik sartzea	4
1.2. Goi mailako heziketa zikloetatik sartzea	6
1.3. 25 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea	11
1.4. 45 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea	12
1.5. Lan esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea	13
1.6. Beste hezkuntza sistema batzuetatik datozen ikasleak	15
2. UPV/EHUn sartzeko prozedura	16
2.1. Sarbide motak eta dokumentazioa	16
2.2. Gordetako plazak	16
2.3. Izena ematea eta onarpena	17
2.4. Sarrera proba espezifikoa daukaten graduatarako sarbidea	17
2.5. 2025-2026 ikasturtean UPV/EHUn sartzeko tramiteen egutegia	18
2.6. Aurreko ikasturteko plaza kopuruak eta gutxieneko nota	19
2.7. Ikasketa desberdinak aldi berean egitea	21
2.8. Espedienteen lekualdaketa	21
3. UPV/EHUko ikastegiak eta graduak	22
4. Informazio orokorra	26
4.1. Sarbide Bulegoak	26
4.2. UPV/EHUko zenbait zerbitzu	26
4.3. Bekak	27
4.4. 2025eko Ate Irekiak	27
4.5. Prezio publikoak	28

1. GRADUKO IKASKETA OFIZIALETARA SARTZEKO ERA

1.1. Batxilergotik sartzea

Unibertsitatara Sartzeko Proba (USaP)

- USaPek bi fase izango ditu: Sarbide Fasea eta Onarpen Fasea.
- Sarbide Fasea gainditzea ezinbestekoa izango da unibertsitatara sartzeko.
- Onarpen Fasea borondatezkoa da eta gradu baterako onarpen nota hobetzea dauka helburu.
- Bi faseetako ariketen iraupena 90 minutuko izango da. Azterketa bakoitzaren kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da.

Sarbide fasea

Irakasgaiak hauek izango dira:

1. Gaztelania eta Literatura II.
2. Euskara eta Literatura II.
3. Espainiako Historia edo Filosofiaren Historia (ikaslearen aukeran).
4. Atzerriko hizkuntza II: inglesa, frantsesa, alemana, italiara edo portugesa.
5. Batxilergoko 2. mailako modalitateko nahitaezko gaia:

— Arteak:

- Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua: Marrazketa Artistikoa II
- Musika eta Arte Eszenikoak: Analisi Musikala II edo Arte Eszenikoak II

— Zientziak eta Teknologia: Matematika II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II

— Modalitate Orokorra: Zientzia Orokorrak

— Giza eta Gizarte Zientziak: Latina II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.

Sarbide Faseko kalifikazioa enborreko bost gai orokorren batez besteko aritmetikoa izango da, hiru zifra dezimalekin eta milarenera biribilduta. Gutxien dela 4 puntu lortu behar dira.

Onarpen fasea

Fase hau borondatezkoa da, eta unibertsitate-gradu jakin baterako onarpen-nota hobetzeko balioko du. Sarrera-proba egin eta onarpen-nota hobetu nahi dutenek Batxilergoko bigarren mailako hiru ikasgairen deialdi berean egin ahal izango dute azterketa, komunak edo modalitatekoak, Sarbide Fasean aztertu ez direnak. Era berean, atzerriko bigarren hizkuntza batean ere aztertu ahal izango dira, proba horretan aukeratutakoa ez den beste batean.

Fase honetan egindako gaietan lortutako nota kontuan hartzeko, ikasleak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu eta euren denbora-balioa Onarpen Faseko irakasgai guztien bezalakoa izango da. Onarpenerako, ikaslearentzat onuragarrienak diren 2 kalifikazioak erabiliko dira.

Ikasleak Onarpen Faseko ikasgaietako ariketetan lortutako kalifikazioek proba gainditu eta berehala hasten den ikasturtean eta hurrengo bi ikasturteetan izango dute balioa.

Izena ematen duenean, ikasleak adierazi beharko du zein irakasgaiaren azterketa egingo duen Onarpen Fasean, bigarren atal hau egingo badu.

Gai baten ariketak berak izango dira Sarbide Fasean nahiz Onarpen Fasean. Irakasgai bakoitzak galdera kopuru zehatz bat izango du, aukera emanez ikasleei galdera batzuen artean gehienezko puntuaketa emaitza lortu ahal izateko.

Azterketa bakoitzak ordu eta erdi iraungo du. Gai bakoitzari 0 puntutik 10 puntura bitartean emango zaio. Nota kontuan hartzeko, ikasleak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu.

Ariketak honela banatuko dira:

	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA
08:30 – 09:00	Aurkezpena		
09:00 – 10:30	Euskara eta Literatura II	Gaztelania eta Literatura II	Atzerriko Hizkuntza II (Ingelesa)
		Atsedenaldia	
11:15 – 12:45	Espainiako Historia	Matematika II Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II Zientzia Orokorrak	Filosofiaren Historia Atzerriko Hizkuntza II (Alemana, Frantsesa, Italiara, Portugesa) Teknologia eta Ingeniaritza II Musikaren eta Dantzaren Historia Mugimendu Kultural eta Artistikoak
		Atsedenaldia	
14:30 – 16:00	Kimika Artearen Historia Diseinua Literatura Dramatikoa	Adierazpen Grafiko eta Plastikorako Teknikak Artearen Historia Biologia Musikaren eta Dantzaren Historia	
		Atsedenaldia	
16:30 – 18:00	Enpresaren eta Negozio Ereduen Diseinua Marrazketa Teknikoa II Adierazpen Grafiko eta Plastikorako Teknikak Geologia eta Ingurumen Zientziak	Fisika Geografia Marrazketa Artistikoa II Arte Eszenikoak II	

* Ordu-tegi hau behin-behinekoa da eta aldatu ahal izango da.

Deialdiak

Bi deialdi egingo dira:

- Ohikoa: 2025eko ekainaren 3, 4 eta 5ean.
- Ezohikoa: 2025eko uztailaren 1, 2 eta 3an.

Matrikulak deialdi baterako besterik ez du baliorik izango. Ohiko deialdian parte hartu duenak, ezohikoan ere aurkeztuko bada, matrikula berria egin beharko du.

Matrikularen tasak: **86,33€**, 2024/06/14ko Aginduaren arabera, Hezkuntzako Sailburuarena (2024/06/24ko EHAA).

Proba gainditzeko zer behar den

Batxilergoko notaren eta Sarbide Faseko kalifikazioaren artean egindako batez besteko nota haztatuan (%60 batxilergoari dagokio eta %40 Sarbide Faseari) 5 puntu edo gehiago lortuz gero, proba gaindituzat joko da, baldin eta ikasleak Sarbide Fasean gutxienez **4 puntu** lortu baditu.

Nota hobetzea

Hala nahi badu, ikasleak aukera izango du sarrera nota eta/edo Onarpen Faseko edozein gaitan lortutako kalifikazioa hobetzeko. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobe bada. Sarbide Fasea gaindituz gero, nota hori gorde egingo zaio ikasleari mugarik gabe; Onarpen Faseko notak, berriz, probak egin eta hurrengo bi ikasturteetan gordeko zaizkio, ez gehiago.

Onarpen Fasea oraindik ez zegoelarik, Sarbide proba gainditu zutenek aukera izango dute proba honetara aurkezteko, beren nota hobe dezaten. Kasu honetan, Onarpen nota honako formula honen bidez lortuko da:

$$\text{Onarpen nota (GON)} = \text{IBK} + \text{K1} * \text{G1} + \text{K2} * \text{G2}$$

IBK = 412/2014 errege dekretua baino lehenagoko sarbide proban lortutako behin betiko kalifikazioa.

G1 eta G2 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.

K1 eta K2 = Haztapen koefizientea.

Kalifikazioak berrikustea

1. Kalifikazioak argitaratu ondoren, ikasle bakoitzak, edo, adingabeak izanez gero, haien gurasoek edo legezko tutoreek, ebaluazio-irizpide orokorrak eta zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoa gaizki aplikatu direla uste den ariketak berrikusteko eskaera aurkeztu ahal izango dute epaimahaiko presidentearen aurrean. Berrikuspen-eskaerak aurkezteko epea hiru egun balioduneko izango da, kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
2. Berrikuspen-eskaeraren xede izan diren ariketak irakasle espezialista batek zuzenduko ditu, eta ez lehen zuzenketa egin zuenak. Azken horrek hasierako berrikuspena egingo du, alderdi guztiak ebaluatu direla eta azken kalifikazioa kalkulatzeko prozesuan akats materialik edo aritmetikorik ez dagoela egiaztatzeko. Hala badagokio, kalifikazioa zuzenduko da, eta ezin izango da lehen zuzenketa emandakoa baino txikiagoa izan. Ondoren, ariketaren bigarren zuzenketa osoa egingo da, ebaluatzeko irizpide orokorrak eta kalifikazio- eta zuzenketa-irizpide espezifikoa behar bezala aplikatu direla egiaztatzeko. Ariketaren azken kalifikazioa lehenengo zuzenketa ondoren emandako kalifikazioaren edo, hala badagokio, zuzendutakoaren eta bigarren zuzenketa emandako kalifikazioaren arteko batez besteko aritmetikoa izango da. Bi kalifikazio horien artean bi puntu edo gehiagoko aldea badago, aurreko ez bestelako bi pertsonak hirugarren zuzenketa bat egingo dute ofizioz. Azken kalifikazioa bi pertsona horiek adostutakoa izango da. Prozedura hori gehienez ere bost egun balioduneko epean egin beharko da, berrikuspen-eskaera aurkezteko ezarritako epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
3. Berrikuspen-prozesua amaitutakoan, antolaketa-batzordeak behin betiko kalifikazioak ezartzen dituen ebazpena hartuko du, eta erreklamatzailerik jakinaraziko die. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.
4. Ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, edo zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
5. Ikasleak eskubidea izango du ezarritako berrikuspen-prozesu osoa amaitu ondoren berrikusitako ariketak ikusteko, hamar egun balioduneko epean, berrikuspenaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Unibertsitateko ikasketak egiteko onarpen nota

Eskari kopurua plaza kopurua baino handiagoa duten graduatan, onarpen nota erabiliko da plazak esleitzeko. Onarpen nota formula honen arabera kalkulatzen da:

$$\text{Onarpen nota (GON)} = 0,6 * \text{BK} + 0,4 * \text{SFK} + \text{K1} * \text{G1} + \text{K2} * \text{G2}$$

BK = Batxilergoko kalifikazioa.

SFK = Sarbide faseko kalifikazioa.

G1 eta G2 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.

K1 eta K2 = Haztapen koefizientea. (Ikus 7-10 orr.).

1.2. Goi mailako heziketa zikloetatik sartzea

- Goi mailako prestakuntza zikloko tituluak unibertsitatera sartzeko eskubidea emango dio ikasleari. Unibertsitaterako sarrera nota (USN) zikloaren batez bestekoa izango da.
- Onarpen nota hobetzeko, aukera izango du aztergai diren gaietako edozeinetara aurkezteko, enborreko orokorrak barne. Graduatarako onarpen nota (GON) kalkulatzeko era Batxilergoko ikasleentzako bera izango da.
- Zikloaren familia profesionala lehentasunezkoa izango da berari lotutako jakintza adarreko graduatarara sartzeko.

Onarpen nota

Uztailaren 29ko 310/2016 errege dekretuaren 19. artikulua dionaren arabera, eskaerak plazak baino gehiago dituzten graduako unibertsitate ikasketa ofizialetan sartu ahal izateko, lehen aipatu diren tituluak dituzten ikasleak Onarpen Faserako aurkeztu ahal dira onarpen nota hobetzeko. Onarpen Fase hau bat etorriko da lehen definitu diren irizpideekin.

Unibertsitate publikoek kasuan kasuko onarpen notaren arabera esleitzeko dituzte plazak. Nota hori behean agertzen den formularen arabera kalkulatuko da eta hiru zifra dezimal izango ditu:

$$\text{Onarpen Nota (GON)} = \text{USN} + \text{K1} * \text{G1} + \text{K2} * \text{G2}$$

USN = Heziketa Zikloko batez besteko nota.

G1 eta G2 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.

K1 eta K2 = Haztapen koefizienteak.

Koefiziente hauek ondoko koadro hauetan ezarritakoak dira UPV/EHUn:

Gradu bikoitzak
 Gradu bietako haztapenak izango dira kontuan, eta puntuaziorik alhena duena esletuko da.

JAKINTZA ADARRA

ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK

Ikasleentzat onuragarrienak diren
 2 kalifikazioak erabiliko dira




GRADUAK		Batxilergo lehenetsia	
ARTEA	EZ	0,2	Adierazpide Grafiko eta Plastikorako Teknikak
ARTEAREN HISTORIA	EZ		Analisi Musikala II
EUSKAL IKASKETAK	EZ	0,2	Arte eszenikoak
FILOLOGIA	EZ	0,1	Artearen Historia
FILOSOFIA	EZ	0,2	Artearen Oinarriak
HISTORIA	EZ	0,2	Bigarren Atzerriko Hizkuntza II
INGELES IKASKETAK	EZ	0,1	Biologia
ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOA	EZ	0,2	Diseinua
KULTURA ONDAREEN ZAINITZA ETA ZAHARBERRITZEA	EZ	0,2	Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua
SORKUNTZA ETA DISEINUA	EZ	0,2	Espainiako Historia
		0,1	Euskara eta Literatura II
		0,2	Filosofiaren Historia
		0,2	Fisika
		0,1	Gaztelania eta Literatura II
		0,2	Geografia
		0,2	Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II
		0,1	Grekoa II
		0,2	Ingelesa
		0,1	Kimika
		0,2	Latina II
		0,2	Literatura Dramatikoa
		0,2	Marrazketa Artistikoa II
		0,2	Mugimendu Kultural eta Artistikoak
		0,2	Musikaren eta Dantzaren Historia

Gratu bikoitzak

Gratu bietako haztapanak izango dira kontuan, eta puntuaziorik altuena duena esleituko da.
 Graduetako batek batxilergo lehenetsia badauka, batxilergo hori izango da lehenetsia gradu bikoitzerako.

JAKINTZA ADARRA**ZIENTZIAK**

Ikaslearentzat onuragarrienak diren
 2 kalifikazioak erabiliko dira

**GRADUAK**


	Batxilergo lehenetsia	Biologia	Fisika	Geografia	Geologia eta Ingurumen Zientziak	Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II	Kimika	Marrazketa Teknikoa II	Matematika II	Teknologia eta Ingeniaritza II	Zientzia Orokorrak
BIOKIMIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARRA	EZ	0,2	0,1		0,1	0,1	0,2		0,1		
BIOLOGIA	EZ	0,2	0,1		0,1	0,1	0,2		0,2		
BIOTEKNOLOGIA	EZ	0,2	0,2				0,2		0,2		
ELIKAGAIEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	EZ	0,2	0,1			0,1	0,2		0,2	0,2	0,1
FISIKA	EZ	0,1	0,2		0,1		0,2	0,1	0,2		
GEOLOGIA	EZ	0,1	0,2		0,2		0,2	0,1	0,1		
INGURUMEN ZIENTZIAK	EZ	0,2	0,2	0,1	0,2	0,1	0,2		0,2	0,1	0,1
KIMIKA	EZ	0,1	0,2		0,1	0,1	0,2		0,2		
MATEMATIKA	EZ	0,1	0,2		0,1	0,2	0,1	0,1	0,2	0,1	

Gratu bikoitzak

Gratu bietako haztapanak izango dira kontuan, eta puntuaziorik altuena duena esleituko da.
 Graduetako batek batxilergo lehenetsia badauka, batxilergo hori izango da lehenetsia gradu bikoitzerako.

JAKINTZA ADARRA**OSASUN ZIENTZIAK**

Ikaslearentzat onuragarrienak diren
 2 kalifikazioak erabiliko dira

**GRADUAK**

	Batxilergo lehenetsia	Biologia	Euskara eta Literatura II	Filosofia eta Historia	Fisika	Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II	Lehenengo Atzerriko Hizkuntza II	Matematika II	Kimika	Zientzia Orokorrak
ERIZAINNTZA	EZ	0,2			0,1				0,2	
FARMAZIA	EZ	0,2			0,1	0,1		0,1	0,2	0,1
FISIOTERAPIA	EZ	0,2			0,1				0,2	
GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA	EZ	0,2				0,1		0,1	0,2	0,1
LOGOPEDIA	EZ	0,2	0,2			0,2	0,2	0,2		
MEDIRUNTZA	EZ	0,2			0,1				0,2	
ODONTOLOGIA	EZ	0,2			0,1				0,2	
PSIKOLOGIA	EZ	0,2		0,2		0,2		0,2		

Gratu bikoitzak
 Gradu bietako haztapenak izango dira kontuan, eta puntuaziorik altuena duena esleituko da.
 Graduetako batek batxilergo lehenetsia badauka, batxilergo hori izango da lehenetsia gradu bikoitzerako.

JAKINTZA ADARRA

GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAR

Ikslearentzat onuragarrienak diren
 2 kalifikazioak erabiliko dira

0,1 0,2

GRADUAK	Batxilergo lehenetsia	
	EZ	EZ
ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA	EZ	
EKONOMIA	EZ	
GEOGRAFIA ETA LURRALDE ANTOLAKUNTZA	EZ	
GIZARTE ANTROPOLOGIA	EZ	
GIZARTE HEZKUNTZA	EZ	
GIZARTE LANGINTZA	EZ	
HAUR HEZKUNTZA	EZ	
IKUS-ENTZUNEKO KOMUNIKAZIOA	EZ	
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIAR	EZ	
KAZETARITZA	EZ	
KRIMINOLOGIA	EZ	
LAN HARREMANAK ETA GIZA BALLABIDEAK	EZ	
LEHEN HEZKUNTZA	EZ	
MARKETINA	EZ	
NEGOZIOEN KUDEAKETA	EZ	
PEBLAGOGIA	EZ	
POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA	EZ	
PUBLIZITATA ETA HARREMAN PUBLIKOAK	EZ	
SOZIOLOGIA	EZ	
ZUZENBIDEA	EZ	
		Adierazpide Grafiko eta Plastikorako Teknikak
		Analisi Musikala II
		Arte Eszenikoak II
		Artearen Historia
		Artearen Oinarriak
		Bigarren Atzerriko Hizkuntza II
		Biologia
		Diseinua
		Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua
		Espainiako Historia
		Euskara eta Literatura II
		Filosofia Historia
		Fisika
		Gaztelania eta Literatura II
		Geografia
		Geologia eta Ingurumen Zientziak
		Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II
		Grekoa II
		Kimika
		Ingelesa
		Latina II
		Literatura Dramatikoa
		Marrazketa Artistikoa II
		Matematika II
		Mugimendu Kultural eta Artistikoak
		Musikaren eta Dantzaren Historia
		Zientzia Orokorrak

Gratu bikoitzak

Gratu bietako haztapenak izango dira kontuan, eta puntuaziorik altuena duena esleituko da.

JAKINTZA ADARRA**INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA**Ikasleentzat onuragarrienak diren
2 kalifikazioak erabiliko dira

0,1

0,2

GRADUAK

	Batxilergo lehenetsia: Zientzia eta Teknologia	Artearen Historia	Artearen Oinarriak	Biologia	Diseinua	Euskara eta Literatura II	Fisika	Geologia eta Ingurumen Zientziak	Gizarte Zientziei Aplikatuak Matematika II	Kimika	Ingelesa	Marraketa Teknikoa II	Matematika II	Teknologia eta Ingeniaritza II
ADIMEN ARTIFIZIALA	EZ					0,1	0,2		0,1		0,1		0,2	0,1
ARKITEKTURA TEKNIKOA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
ARKITEKTURAREN OINARRIAK	EZ	0,2	0,1		0,2		0,2					0,2	0,1	
AUTOMOBILGINTZAREN INGENIARITZA	BAI						0,2					0,2	0,2	
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INGENIARITZA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAREN INGENIARITZA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN INGENIARITZA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
INDUSTRIA KIMIKAREN INGENIARITZA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
INDUSTRIA TEKNOLOGIAREN INGENIARITZA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
INGENIARITZA BIOMEDIKOA	BAI			0,2			0,2			0,2			0,2	
INGENIARITZA ELEKTRIKOA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
INGENIARITZA ELEKTRONIKOA	EZ			0,1			0,2	0,1		0,2		0,1	0,2	0,2
INGENIARITZA INFORMATIKOA	EZ					0,1	0,2		0,1		0,1		0,2	0,1
INGENIARITZA KIMIKOA	EZ			0,1			0,2	0,1	0,1	0,2		0,1	0,2	0,1
INGENIARITZA MEKANIKOA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
INGENIARITZA ZIBILA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
INGURUMEN INGENIARITZA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
ITSASKETA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
KUDEAKETAREN ETA INFORMAZIO SISTEMEN INFORMATIKAREN ING.	BAI						0,2						0,2	
NAUTIKA ETA ITSAS GARRAIOA	BAI						0,2			0,2		0,2	0,2	
TELEKOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAREN INGENIARITZA	BAI						0,2						0,2	

1.3. 25 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea

Etsaminarako matrikula

Matrikula egin ahal izango dute 2025ean 25 urteak edo gehiago egingo dituzten pertsonak baldin eta unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio akademiko edo ikasketarik ez badute.

Izena **2025eko otsailaren 3tik 21era** eman ahal izango da www.ehu.eus/ helbidean. Matrikularen tasak: 86,33€, 2024/06/14ko Aginduaren arabera, Hezkuntzako Sailburuarena (2024/06/24ko EHAA).

Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen SARBIDEA aplikazioan (www.ehu.eus/).
2. NAN-aren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten kopia.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitortpena, interesatuak unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena.

Deialdiak

Urtero unibertsitateak sarrera proba bat antolatuko du 25 urtetatik gorakoentzat; proba behin gaindituta, interesatuak aukera izango du hurrengo deialdietan berriro aurkezteko, nota igo nahi balu titulazio jakin batera sartzeko. Halakoetan unibertsitateak probaren kalifikaziorik onena hartuko du kontutan, proba unibertsitate berean egindakoa bada.

Aurtengo proba **2025eko maiatzaren 9an** izango da, **ostiralaz**.

Probaren egitura orokorra

Unibertsitatera sartzeko probak bi fase ditu, bata orokorra eta bestea espezifikoa.

Fase orokorra

Fase honen helburua da ea interesdunek unibertsitate ikasketak modu arrakastatsuan jarraitzeko behar adinako heldutasuna eta egokitasuna duten balioestea. Ondoren aipatzen diren arloekin lotutako lau ariketa egin beharko dira.

- a) **Testu baten iruzkina egin edo egungo gai orokor bat garatu.**
- b) **Gaztelania.**
- c) **Atzerriko hizkuntza**, alemana, frantsesa, ingelesa, italiara edo portuguesaren artean aukeratzeko.
- d) **Euskara.** Euskarako etsaminaz salbuesteko eskatu ahal izango da honako arrazoi hauengatik:
 - 1971/01/01a baino lehen jaioa izana.
 - Derrigorrezko irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egina izana.
 - Ohiz kanpoko beste kausa batzuk, behar bezala dokumentatuak, salbuespen hori justifikatzen badute. Nagusiak Unibertsitatera Sartzeko Probak Antolatzeko Batzordeak ebatziko ditu eskariak eta, eskuordetzeaz, batzordeburuak edo UPV/EHUko Unibertsitatera Sartzeko Probetako zuzendariak.

Salbuespena eskatzeko epea **matrikularen azken egunean** bukatuko da.

Fase espezifikoa

Probaren fase espezifikoaren bidez, ikaslearen trebetasuna, gaitasuna eta ahalmena neurtu nahi dira jakintza-adar bakoitzari lotutako unibertsitateko ikasketak ondo burutuko baditu.

Bost aukera izango dira, graduiko ikasketa ofizialak beren baitan dituzten bost jakintza arloekin lotutakoak. Fase honetan ikasleak bi gai aukeratuko ditu adar bakoitzetik. Hona jakintza-adarrak eta bakoitzaren gaiak:

- A) **Arteak eta giza zientziak:**
Irakasgaiak: Artearen Historia, Marrazketa Artistikoa, Historia eta Filosofiaren Historia.
- B) **Zientziak:**
Irakasgaiak: Matematika, Fisika, Kimika eta Biologia.
- C) **Osasun Zientziak:**
Irakasgaiak: Gizarte eta Osasun Zientzietarako Matematika, Fisika, Kimika eta Biologia.
- D) **Gizarte eta Lege Zientziak:**
Irakasgaiak: Gizarte eta Osasun Zientzietarako Matematika, Enpresa Ekonomia, Historia eta Geografia.
- E) **Ingeniaritza eta Arkitektura:**
Irakasgaiak: Matematika, Fisika, Kimika eta Marrazketa Teknikoa.

Fase espezifikoa egin beharko dute norberak hautatutako aukeran, eta sarbideari dagokionean, ahal delarik, aipatutako jakintza arlo bakoitzarekin lotuta unibertsitateak eskainitako unibertsitate ikasketak egokituko zaizkie.

Izena ematerakoan adierazi beharko dute zeintzuk irakasgaitan egin nahi duten etsamina.

Ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan egin ahal izango dira.

Probaren kalifikazioa

Azken kalifikazioa fase orokorrean eta espezifikoan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da: 0tik 10era bitarteko kalifikazioa izango da bi dezimalekin adierazia eta ehunenekorik hurbilenera biribildua, eta hirugarren dezimala 5 denean, ehunenekorik handienera.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gutxienez bost bat lortu beharko da azken kalifikazioan, eta batez bestekoa egiteko, beharrezkoa izango da fase bakoitzean (orokorrean eta espezifikoan) gutxienez lau bat ateratzea. Ikasleak proba osora aurkeztu ahal izango dira ondorengo deialdietan, kalifikazioa hobetzeko. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobea bada.

Erreklamazioa

Behin-behineko kalifikazioak argitaratuta, interesdunak hiru egun baliodun izango ditu epaimahaiari erreklamazioa jartzeko.

Epaimahaiak emandako behin betiko kalifikazioarekin ados egon ez badago, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio graduen eskumena daukan errektoreordeari.

1.4. 45 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea

Etsaminarako matrikula

Matrikulatu ahal izango dira 45 urtetatik gorako pertsonak, baldin eta **unibertsitatera beste bide batetik sartzeko titulazio akademiko edo ikasketarik ez badaukate** eta aipatutako adina 2025ean beteta edo betetzen badute. Proba gaindituta, berau egin duteneko unibertsitatera sartu ahal izango dira baina ez besteetara.

Izena **2025eko otsailaren 3tik 21era** eman ahal izango da www.ehu.eus/ helbidean. Matrikularen tasak: 86,33€, 2024/06/14an Aginduaren arabera, Hezkuntzako Sailburuarena (2024/06/24ko EHAA).

Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala bete, webgunean.
2. NAN-aren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten kopia.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitorpena, interesatuak unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena

Probaren egitura orokorra

Aurtengo proba **2025eko maiatzaren 9an** izango da, **ostiralaz**.

Unibertsitatera sartzeko probak bi fase ditu.

Lehenengo fasea

Fase honen helburua izango ea interesdunek unibertsitate ikasketak modu arrakastatsuan jarraitzeko behar adinako heldutasuna eta egokitasuna duten balioestea, bai eta arrazoiak eman eta adierazpenak egiteko gaitasuna ere. Beheko arloekin lotutako hiru ariketa egin beharko dira:

- a) **Testu iruzkina.**
- b) **Gaztelania.**
- c) **Euskara.** Ariketa honetarako salbuespena eskatu ahal izango dute, 25 urtetatik gorakoen atalean adierazitako egoeraren bat justifikatzen bada.

Salbuesteko eskari guztiek izan beharko dute alegatzen duten egoera justifikatzeko dokumentazioa. Salbuespena eskatzeko epea **matrikularen azken egunean** bukatuko da.

Ariketak 25 urtetatik gorakoak unibertsitatean sartzeko probetako berak izango dira, egun eta leku berean egingo dira eta epaimahaiak ere berak izango dira.

Bigarren fasea

Elkarrizketa pertsonala. Ikasketa jakin batzuetara sartzeko gaitasunak eta jakintza balioetsiko dira. Elkarrizketa pertsona adituek egingo dute eta emaitza Gai edo Ez Gai izango da. Lehenengo fasea gainditu dutenek beste inork ez du parte hartuko elkarrizketan.

Probaren kalifikazioa

Azken kalifikazioa ariketetan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da: 0tik 10era bitarteko kalifikazioa izango da bi dezimalekin adierazia eta ehunenekorik hurbilenera borobildua, eta hirugarren dezimala 5 denean, ehunenekorik handienera.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gai kalifikazioa lortu behar da elkarrizketan, eta gutxienez bost bat azken kalifikazioan, eta batez bestekoa egiteko, beharrezkoa izango da ariketa bakoitzean gutxienez lau bat ateratzea.

Erreklamazioa

Behin-behineko kalifikazioak argitaratuta, interesdunak hiru egun baliodun izango ditu epaimahaiari erreklamazioa jartzeko.

Epaimahaiak emandako behin betiko kalifikazioarekin ados egon ez badago, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio graduaren eskumena daukan errektoreordeari.

1.5. Lan esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea

1. Unibertsitaterako sarbidea ematen duen titulazio akademikorik izan ez arren, 40 urtetik gorakoak unibertsitatera sartu ahal izango dira bide honetatik, ikasketa jakin batzuekin lotutako lan esperientzia badaukate, eta ikasturtea hasiko den urte naturalean adin hori badaukate edo urte horretan betetzen badute. Probak ikasketa jakin batzuetarako sarbidea emango du, gradu horren ardura daukan ikastegiak aukera hori eskaintzen badu eta graduaren memorian hala jasota badago.
2. Graduaren ardura daukan ikastegiak batzorde bat eratuko du bide horretatik sartzeko aurkeztutako eskariak ebaluatzeko. Ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordea izan ahalko da, edo horretarako sortutako beste bat. Batzorde horrek zehaztuko du zein esperientzia mota eskatuko den, nola egiaztatuko den eta zein irizpide objektibo erabiliko den eskariak ebaluatu eta ordenatzeko. Edozelan ere, interesdunak elkarrizketa egin beharko du, gerora ere errepikatu ahal izango delarik. Lan esperientziaren balorazioak betirako balioa izango du unibertsitateko ikasketa jakin horietarako. Irizpideak gutxienez urtebete lehenago onartu eta argitaratuko dira ikastegiaren web orrian.
3. Eskariak jasota, batzordeak hautagaien curriculuma, lan bizitza eta elkarrizketa baloratuko ditu, 0tik 10era bitarteko puntuazioarekin. Hautagaiari behin-behineko balorazioa jakinaraziko zaio eta berak hiru egun baliodun izango ditu batzordeari kalifikazioaren berrikuspena eskatzeko.
4. Batzordearen balorazioa aintzat hartuta, ikastegiko zuzendari edo dekanok behin betiko balorazioa egingo du eta eskaria ebatziko du. Behin betiko balorazioa gradurako onarpen nota izango da. Ikastegiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio graduaren eskumena duen errektoreordeari.

Aurkeztu beharreko dokumentuak

Izena 2025eko otsailaren 3tik 21era eman ahal izango da, SARBIDEA aplikazioaren bidez.

1. Eskaria behar bezala bete.
2. NAN-aren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten kopia.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitortpena, interesatuak unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena.
5. *Curriculum vitae*, behar bezala dokumentaturik.
6. Lan bizitzaren txostena.

Bide honetatik ikasketa zehatz batzuetara sartu ahal izango da, besterik ez, hau da, ikasketa-planean hala jasota eta araututa daukaten graduetara. Honako hauek dira tituluak:

Graduak	Ikastegiak
Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako Eskola
Nautika eta Itsas Garraioko Gradua Itsasketako Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola (Portugalete)
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gasteizko Ingeniaritzako Eskola
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako Eskola Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako Eskola
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)
Arkitektura Teknikoko Gradua	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Ingeniaritza Zibileko Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Ingeniaritza Kimikoko Gradua Geologiako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Kimikako Gradua	Kimika Fakultatea Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Farmaziako Gradua	Farmazia Fakultatea
Erizaintzako Gradua	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Donostia) Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa) Erizaintzako U. E. (Vitoria-Gasteiz)
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bilbo) Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostia) Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gasteiz)
Negozioen Kudeaketako Gradua Ekonomiako Gradua Marketineko Gradua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bilbo)
Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua Kazetaritzako Gradua Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua Soziologiako Gradua	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Zuzenbideko Gradua	Zuzenbide Fakultatea Zuzenbide Fakultatea - Bizkaiko Atala
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Leioa)
Kriminologiako Gradua	Zuzenbide Fakultatea
Arteko Gradua Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	Arte Ederren Fakultatea
Haur Hezkuntzako Gradua Lehen Hezkuntzako Gradua	Bilboko Hezkuntza Fakultatea Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Gizarte Hezkuntzako Gradua	Bilboko Hezkuntza Fakultatea Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Gizarte Antropologiako Gradua Filosofiako Gradua Pedagogiako Gradua	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Gizarte Langintzako Gradua	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Graduak	Ikastegiak
Filologiako Gradua Ingeles Ikasketetako Gradua Euskal Ikasketetako Gradua Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua Historiako Gradua Artearen Historiako Gradua Itzulpen gintza eta Interpretazioko Gradua	Letren Fakultatea

1.6. Beste hezkuntza sistema batzuetatik datozen ikasleak

Atzerriko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak UPV/EHUko titulu ofizialetara sartu ahal izango dira ondoko baldintza hauen arabera:

I. EBko herrialdeetan edo elkarrekikotasun hitzarmena sinatua daukaten herrialdeetan egindako ikasketak dauzkatenak.

- Halako ikasketak dituztenek unibertsitatera sartzeko aukera dute, baldin eta kasuan kasuko herrialdean unibertsitatera sartzeko baldintzak betetzen badituzte.
- USNa izango da UHUNek emandako ziurtagirian agertzen dena.
- GONa kalkulatzeko kontuan hartuko da edozein unibertsitatetan egindako USPko onarpen fasea eta/edo UHUNeko gaitasun espezifikoen probetako (GEP) kalifikazioa.
- Onarpen nota hobetzeko, ikasleak berriz aurkeztu ahal izango dira aztergai diren gaitetako edozeinetara edozein unibertsitatetan, edo UHUNeko gaitasun espezifikoen probetara (GEP).

II. Elkarrekikotasun hitzarmenik gabeko herrialdeetan egindako ikasketak dauzkatenak.

- Gobernuak arautu artean atzerriko ikasketak dauzkaten ikasleek unibertsitatera sartzeko egin beharreko proba, ikasle horiek unibertsitate honetan edo beste edozeinetan egin ahal izango dute USPa, Batxilergo titulua behin homologatuta. Homologazio agirian agertzen den Batxilergoko modalitatera aurkeztu beharko dira. Agirian ez bada agertzen Batxilergoko modalitatearik, nahi duten modalitatean egin ahal izango dute USPa.

Bestela, USParen ordeaz, GEP azterketak (gaitasun espezifikoetako probak) egin ditzakete Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalan (UHUN), baliokideak baitira.

- GEPen edukia.

Nahi dutenak gaitasun espezifikoen probetara aurkeztu ahal izango dira (gehienez ere sei gairen azterketetara), sarrera nota bat lortzeko eta, gura izanez gero, onarpen nota hobetzeko.

UPV/EHUK honako formula hau erabiliko du SARRERA NOTA kalkulatzeko:

$$\text{Sarrera nota} = (\text{BBN} \times 0,2 + 4) + 0,1 \times \text{GEP1} + 0,1 \times \text{GEP2} + 0,1 \times \text{GEP3} + 0,1 \times \text{GEP4}$$

Proba gaindituztat jotzeko, ikasleak gutxienez bi azterketa gainditu beharko ditu (hau da, gutxienez 5,0 atera bi gaitan), eta GEP gehiagotara aurkeztu bada, lau kalifikaziorik onenak hartuko zaizkio kontuan.

Izanez:

BBN = Batxilergoko batez besteko nota.

GEP = UHUNeko gaitasun espezifikoen proba.

III. Unibertsitate ikasketak dauzkatenak.

Honako hauek zuzenean sartu ahal izango dira unibertsitateko gradu ofizialetara:

- Unibertsitateko gradu edo master titulu ofizial bat edo baliokide bat daukatenak.
- Unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko, lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulu ofiziala edo haien baliokidea daukatenak, unibertsitateko ikasketen lehengo antolaketaaren arabera.
- Espainiako unibertsitate batean ikasketen zati bat eginda daukatenak, baldin eta betetzen badute UPV/EHUko Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegiko 11. artikuluan ezarritakoa.
- Atzerriko unibertsitate batean ikasketen zati bat egin dutenak edo, atzerrian unibertsitateko ikasketak amaituta izanik, Espainian homologaziorik edo baliokidetzarik lortu ez, eta Espainiako unibertsitate batean ikasten jarraitu nahi dutenak. Kasu horretan UPV/EHUko Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegiko 12. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2. UPV/EHUⁿ SARTZEKO PROZEDURA

2024ko ekainaren 11ko 534/2024 Errege Dekretuari jarraiki, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean ikasten hasi nahi duten ikasleek baldintza akademikoak bete beharko dituzte eta izena emateko eskaria aurkeztu horretarako ezarrita dauden epeetan, baldintza akademikoak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuekin batera (ikus hurrengo atala). Izena emateko eskari bakarrean ikasleak gehienez 8 titulazio ipiniko ditu bere lehentasunen arabera sailkatuak, eta adieraziko du eskaria zeintzuk sarbidetatik aztertzea nahi duen.

2.1. Sarbide motak eta dokumentazioa

UPV/EHUⁿ sartzeko eskaria egin nahi duten ikasleek aukera hauetakoren bat erabili beharko dute:

- LOMLOE batxilergoa eta Unibertsitatara Sartzeko Proba (USaP) dituzten ikasleak.
- Batxilergo titulua edo baliokidea izan eta sarrera proba egin duten ikasleak.
- Unibertsitateko tituludunak.
- Atzerriko ikasleak, zein, bere herrialdean unibertsitatara sartzeko eskaturiko betebeharrak betetzen badituzte.
- Atzerriko ikasleak, LOMLOE batxilergoa homologatuta baina sarrera probarik ez duena.
